

2023ko DEIALDIA **FUNDACIÓN BBVA: PROGRAMA PRISMAS Y** **PROBLEMAS**

Deialdiaren xedea honako arazo hauetan oinarritutako proiektu aplikatuak eta diziplinartekoak garatzeko dirulaguntzak ematea da:

- Uraren zikloa Espainian, erabilerak eta kudeaketa
- Ekosistema kritikoen kontserbazioa Espainian
- Adimen artifizialaren balioak, erregulazioa eta aplikazioak
- Digitalizazioa eta gailu mugikorrek irakaskuntzan
- Hezkuntza-ereduak eta emaitzak
- Gazteak: enplegarritasuna, etxebizitza eskuratzea eta pertsonen arteko harremanak
- Genero-indarkeria: analisi konparatua
- Demokrazia eta zuzenbide-estatua Europan

Proiektuen iraupena:

Hautatutako proiektuak gauzatzeko gehieneko epea **24 hilabetekoa** izango da

Finantzaketa:

Deialdi honen zuzkidura osoa **3 milioi eurokoa** da.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Deialdi honetan parte hartzen duten ikertzaileek proiektu bakar batean egin ahal izango dute.
- Ikertzaile nagusi bakarrak aurkeztu beharko ditu proiektuak, eta baldintza hauek bete beharko ditu:
 1. Espainiako nazionalitatea izatea edo Espainian bizitzea, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzen arabera.
 2. Doktore-titulua izatea eskabidea aurkezten den unean.
 3. Lan-harremanaren, estatutupeko harremanaren edo funtzionario-harremanaren bidez lotuta egotea unibertsitate-erakunde batekin edo ikerkuntzan aritzen den irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatu batekin, guztiak ere Espainian egoitza dutenak. Lotura hori aurkeztutako proiektua garatzeko aurreikusitako aldiari mantendu beharko da.

- Ikerketa-taldeko gainerako kideak edozein herrialdeko erakunde eta ikerketa-zentro publiko edo pribatuetakoak izan daitezke.

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Eskaerak **gaztelaniaz edo ingelesez** aurkeztu beharko dira

UPV/EHUen eskabideak aurkezteko prozedura:

UPV/EHUen proiektua garatuko duten eskatzaileek honako dokumentazio hau bidali beharko dute posta elektronikoz, igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus helbidera, **2024ko apirilaren 23a baino lehen**:

- Proiektuaren memoria
- Aurrekontua
- Ikerketa-talde parte-hartzailea

GARRANTZITSUA: Eskabideak behar bezala eta epean aurkeztu behar ditu ikertzaile nagusiak (koordinatzaileak), honako aplikazio honen bidez:

[Programa Prismas y Problemas | Convocatoria abierta | Fundación BBVA \(fbbva.es\)](#)

Atxikita dagoen erakundea (UPV/EHU, kasu honetan) ados egon dadin, beharrezkoa da Ikerketako Errektoreordetzak emango dituen bi dokumentu aurkeztea.

Kontaktua UPV/EHUen:

- E-maila: igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus

Kontaktua BBVA FUNDAZIOAN:

- E-maila: ayudas-investigacion@fbbva.es